

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko maiatzaren 22a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Haur eta gazteek egindako antzerkia nonahi asteazkenetik ostiralera.

M^a Angeles Mezkiriz • «Museoa ikerkuntza zentro bat da».

Zubietako errotaren bizia berria



Errotari lana atzean geratu den ofizioa da, eta harekin batera hura lekutzen duen errota. Hori gerta ez dadin, Zubietako Udala errota zaharberritzen ari da. Lanak bukatutakoan, artoa eta garia ehotzeaz gain, ekomuseo bihurtuko da. Hau da, errota bateko bizimodua erakutsiko c.u.



Bera •

Antzerkiaren mugen gainetik

Mugaz Gain haur eta gazte jaialdia eginen da asteazkenetik ortziratera

Lamixine BAT Berako Antzerki taldeak antolatuta, heldu den astean eginen da Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdia, laugarren urtez.



Iturrama ikastetxeakoak ariko dira topaketetan.
• MIKEL SAIZ

HAUR ETA GAZTEEI ANTZERKIA BIZIARAZTEKO helburuarekin, asmo pedagogikoarekin antolatzen du urtero Lamixine Batek jaialdia. Haurrek eurek egindako muntaiak izan ohi dira, gehienetan urtean zehar antzerki tallerretan landutako ikuskizunak ekarri ohi dira, eta aurten ere hala izanen da.

Eskualdeko taldeei ematen zaie lehenetsua jaialdian parte hartzeko tenorean. Garrantzi hori aintzat hartuta, bertako ikastetxeekin jarri ohi dira antolatzaileak harremanetan. Bertako eskoletako eskaintzaren ostean, kanpotik zenbait talde ekarri ohi dituzte, baina beti ere eskola antzerkiaren filosofia aintzat hartuta.

Aurten zortzi ikuskizun taularatu dira, hiru egunetan guztiak ere. Ikuskizun guztiak leku berean egiten dira, Berako Kultur Etxean. Talde baten ikuskizuna bukatu eta hurrengo taldearen muntaia hasi ohi da. Adin tartean arabera sailkatzen zaie, eta antolatzaileak dira, hortaz, gonbidapenak eskaintzen dituztenak. Haur Hezkuntza, Le-

hen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko 600 ikaslelik goiti pasako da Kultur Etxetik hurrengo egunetan.

Egitarau trinkoa

Asteazkenean hasiko da jaialdia. Goizeko 11:00etan Iruñako Iturrama institutuko gazteak ariko dira, *Hemen ez du inork ere ordainduko* lana taularatuko dute. Egun berean, baina arratsaldeko 3:00etan Hendaiako Antzerkilariak elkartearen Ertainen Taldeak *Hegalkada* lana ekarriko du.

Ortzegunean, Berako Ricardo Baroja eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek *Farre egiten ez zuen erregea* lana erakutsiko dute goizeko 10:00etan. Ordu bat beranduago,

11:00etan, Sarako eskola publikoko haurrek *Ert Haundia* lana taularako dute, eta ikastetxe bereko ikasleek ordu laurden beranduago *Joanes Zirtzil* lana.

Eguneko azken ekitaldia Berako Labiaga Ikastolako 6. mailako ikasleek antolatu dute, *Pedro eta Otsa* obra eskainiko dute. Ortziralean, jaialdiaren azken egunean, goizeko 11:00etan *Maribel y la extraña familia* emanen dute Donostiako Bidebieta institutuko ikasleek. Lan hau izanen da gazteleeraz emanen den bakarra. Arratsaldeko 3:00etan, Lesakako Irain eskolako 6. mailako taldearen *Horroroskopolandia* lanarekin teloa jaitsi eginen da.

Lamixine Bat antzerki taldeko hiru lagun ariko dira egunero hau guztia koordinatzen, taldeekin harremanetan, argiekin... Talde guztiak bolondres agertzen dira jaialdira, bidaia gastuen truke kanpotik datozenentzat. Hala ere, batak eta besteak aurrekontua nabarmen igotzen dute, eta hortarako, aitzineko edizioetan bezala, Berako Udalaren laguntza izanen dute. Jaialdia Berako Kultur Batzordeak 98rako antolatu duen egitarauaren barranean sartzen da. Laugarren edizio honetako bereizgarririk nagusia, Iparraldeko taldeen presentzia handia izanen da.

→ Jon Abril

Bortzirriak

EGUNKARIAREN astea eginen da Bortzirietan

ERAUSIAN BORTZIRIETAKO GAZTEEN Euskara Taldeak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAK elkarlanean egunkari honen aldeko astea antolatu dute datozen egunetarako Bortzirietan. Erakusketa herriz herri ibiliko da, Arantzan hasi, Igantzi, Etxalar eta Lesakatik igaro eta Beran amaituko da EGUNKARIAREN erakusketa.

Horrezaz gain, egunez egun makina bat ekintza prestatu dituzte. Hala, asteartean Etxalarko eskola zaharretan Berako Agerra Mendi Taldeak Perurá egindako espedizioko diaporama ikusi ahal izanen da, 20:30-etan. Asteazkenean Lesakako ikastolan Txan Handiaren magia saioa ikusi ahal izanen da 7:30etatik aitzinera, eta ortzegunean leku eta toki berean mahai-ingurua antolatu dute. Mintzabidea, herritarren parte hartzea komunikabideetan izanen da, eta bertara bilduko dira Irene Arrizurieta Nafarkariako arduraduna, Alberto Barandiaran EGUNKARIAKO kidea, Joxe Manuel Irigoien Ttipi-Ttapako zuzendaria eta Mari Karmen Irungarai Xorroxin Irratiko kidea.

Larunbatean, maiatzak 30, Berako kultur etxean kantari gazteekin emanaldia eskainiko da, 22:30etan.


Azkenik, igandean, hilak 31, Nafarroako bertsolari gazteekin bertso saioa izanen da Igantziko Biltokian, arratsaldeko 7:30etan.

Aste honen helburu nagusia Bortzirietan Euskaldunon Egunkaria ezagutzera ematea da, eta jendeak egunero euskaraz irakurtzera jo dezan bultzatu nahi da.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



iruñeko hiritar asko bezala ni ere mindu nau Tomas Caballeroren hilketak. Mindu eta etsipena sentiarazi: gure arteko desbideraketak ez omen du amaierarik. UPNeko zinegotzia ez zen hola hil beharrik, ez zuen tiroz hil mezezi. Garai historiko honetan ez dago justifikaziorik horrela jokatzeko. Hau ez da diktadura bat, bateon batek kontrakoa uste duen arren. Gizon honek -beste edozeinek bezala- bazuen eskubidea bizirik jarraitzeko, eta eskubide hori urratu dute hiltzaileek bizia kendu diotenean.

Frankismoaren kontrako garaietan ezaguna zen T. Caballero. Izan ere, HOAC, JOC eta, oro har, mugimendu sindikalaren lehen hastapenetan emanak zituena bere urratsak, beti ere, langileen defentsan, ikuskera kristau-demokrata bati atxikia. Transizio garaian eta, baita ondorengo urteetan ere -UPNen aritu aurretik-, bere ekarria utzi zion mugimendu politikoari, zen-

Idazkariaren aurrean

bait jardun politikotan aktiboki parte hartu zuelarik. Iruñeko Oberena elkartearen entzutetsu eta estimatua zen oso. Duda gabe, garai modernoetako *Res Publica* delakoaren aintzindarietako bat galdu du Iruñeak, eta horrelaxe ulertu dute pentsakera bateko zein besteko laguntalde zein gizabanako ezberdinek.

Senitartekoen malko garratzak, jendearen kopetilluak eta diskurtsoen errepikapena nabaritu dira, beste behin ere, hilketaren aurrean.

Guztiarekin ere, eta gaitzezpen atalera mugatuz, bada bat besteen gainetik nabarmendu beharrekoa: zenbait idazki baten bidez euskaltzale mundutik plazaratu dutena, alegia. Nik dakidala, halakorik ez da inoiz gertatu alor honetan, eta, arrazoi honengatik bakarrik bada ere, ekimenak badu esanahi berezia. Edukina arretaz irakurri eta gero argiro ondorioztatzen da, zinegotziaren hilketakogor eta mintzaira ez-kripti-

koan salatzeaz aparte, egileek eta idazkariaren alde lerrokatu direnak deseroso sentitzen direla indarkariak euskararekin zerkusi duen orori omen dakartzkion gaitzak direla eta. Afera ez da berria, askotan aipatu izan baita han-hemenka, ez ordea, oraingoan egin den bezala. Zuzen eta sahiestu gabe.

Esaldi bat edo beste kenduko nukeen nik idazki honetatik, erantsi ere erantsiko nukeen besteren bat, baina, fiabardurak fiabardura, nator bat bertan esaten diren ideien muinarekin.

Zer dinamika moeta ekarriko ote duen ikuskizun dago orain. Nola nahi den, plazaratu izanak badu, besterik gabe, bere garrantzia. Egileak eta izenpetzaileak euren gordelektuxoa utzi behar izan dutelako kanpora ateratzeko, eta honek nahigabea sortarazten du beti, baita ez-ikusierena egin dutenengan ere. Nik uste.

Lekunberri

Etorkizuneko herria diseinatu dute

'LEKU BERRI BAT LEKUNBERRIRENTZAI'. Hitz joko horrek behar bezela laburtzen du Lekunberriko Udalak eta Nafarroako Unibertsitateak sinatutako akordioaren helburua. Hitzarmen horri esker, Arkitektura Fakultateko ikasleek, etorkizuneko herria nolakoa izango den diseinatu duten, edo behintzat nolakoa izatea gustatuko litzazkiekeen.

Aspaldi honetan, etorkizuneko oso kezkatuak dabil Lekunberriko Udala. 2000. urterako hirigintza plana ere egin da dagoeneko. Ekimen hau da gai horretan zuzen emandako azken urratsa. Horren ondorioz, Arkitektura Fakultateko seigarren mailako ikasleek, berriz, Lekunberriko txoko guztiak berritzen, paper gainean, beti ere. Hirigintza klaseko lana zen hauxe. Sariketa moduan antolatu zuten ekimena, eta ondorioz, hiru sari banatu zituzten. Lehenengo sailkatu zirenei, hau da, Victor Diaz Arcayo, David Dominguez Ruado, Javier Lecuona eta David Serranori, 250.000 pezeta eman zizkieten. Bigarren geratu zirenek, Ander Agiñako, Amaia Zelaia, Fernando Fernandez Rincon eta Marisa Lopez Mielgok, 150.000 pezeta jaso zituzten. Eta hirugarren taldeak, Cesar de Sada, Jacobo Bouzada, Cesar Leal eta Jesus Sanzek osatutakoak, 100.000 pezeta eskuratu zituen.

Hauek egindako lanak, eta parte hartu zuten gainerantzekoek, Mitxausenea Kultur Etxean izan dira ikusgai. Denak ere lan berritzaileak ziren, imajinarioz beteak. Herritarren artean harrera ona izan zuten ideiaok.

Aurrerantzean ere, ikasleentzako ekimen gehiago antolatu asmo ditu: udan bekadun bat aritu behar du Mitxausenean, Lekunberriren historia osatzen.

→ Urko Aristi



Izarbeibarko Euskararen Eguna etzi

Izarbeibarko Euskararen Eguna ospatuko da etzi Eunate. Eguna ongi pasatzeko, antolatzaileek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hamarretan Garesko Mena plazatik abiatuko den txirindula martxa egingen da. Obanos eta Muruzabaletik iragan eta gero 11:30etan Eunate bukatuko da. Ordu erdi beranduago meza emanen da eta 13:00etan kantaldia, herri kirolak, gaitariak eta txalaparta izanen dira. Otordua ordu bi eta erdietan egingen dute eta bazkal ondorena gaitariak eta trikitiak alaituko dute. Haurrentzako ere izanen da denborapasarik. 15:30etan T'ombligok Kaninando antzetzuko du euskaraz, gaztetxoentzat. Sei eta erdietan txirindula martxaren itzulera egingen da.

Bidankoze

Uskararen Eguna ospatuko da asteburuan

ERRONKARIKO BIDANKOZE HERRIAK lekutuko du asteburuan II Uskararen Eguna. Jaia euskararen alde bailaran lan egiten duen Kebenko taldeak antolatu du eta joan den urteko ekainean egin zen lehenengoz Uztarrozen.

Antolatzaileen esanetan jaia asteburu kulturala izanen da. Egitaraua gaur hasiko da. Koldo Zuazo erronkariako euskaraz ariko da, arratsaldeko 8:00etan, Bailarako Etxean. Ondoren, ekainaren

4ra arte zabalik egonen den 'Euskara betiko mintzoa' erakusketa zabalduko da. Larunbatean eguna gaitarien dianak hasiko dute 10:00etan. Hamaika eta erdietan San Pedro elizan meza izanen da. 12:30etan Gayarre Abesbatzak kantatuko du. Ordu erdi beranduago hildako bailarako zazpi euskalzale omenduko dira. «Aurten zazpi aukeratu ditugu. Bi bidankozekoak dira, eta gainontzeko bostak Bailaran egon diren azkenetakoak izan dira. Badakit azkenekoen artean batzuk ez ditugula sartu baina horiek beste alde baterako utziko ditugu» dio Oskar Urzainki Kebenko taldeko kideak. Aurten omenduko dira: Dorotea de Miguel Bernat, Fidela Bernat, Ricarda Perez Marco eta Balbina Ederra Bortiri uztarroztarrak,

Antonia Anaut Garde izabarra, eta Mariano Mendigacha Ornat eta Pedro Prudencio Hualde Mayo bidankoztarrak. Ekitaldian omendutako familiakoei izkribu bat emanen zaie eta Jose Maria Satrustegi euskaltzainak eta Koldo Artolak hitz egingen dute. 15:00etan bazkaria izanen da eta 18:00etan Zuberoako dantzariak ariko dira plazan. 20:00etan Daniel Salvador eta Gerard Ihdoy kantariak abestuko dute eta jarraian Iparraldeko Aistrika taldearekin dantzaldia izanen da. Igandean, berriz, herriko plazan haurrentzako kontu-kontariak izanen da 12:00etan. Zuberoako dantza taldeak eskainiko duen emanaldiarekin bukatuko da Uskararen Eguna.

→ Fernando Hualde

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Euskal Herria Zuzenean

Herria astekariak, Piztu elkarteak eta Irulegi Irratiak antolatu Euskal Herria Zuzenean aipatzen du azken zenbakian: «Euskal Herria Zuzenean festibala muntatzen dute aurten ere Piztu elkarteak eta Irulegi Irratiak. Hirugarren aldikotz eta beti toki berean, erran nahi baita Arrosan. Hiru egunez, uztaileko lehen asteburuan. Jaz hamar mila jende bildu ziren karia hartarat, aurten pentsatzen dute oraino gehiago ere bilduko dela! Hortakotz dira aski goiz plantatuak apailu guztieri, hortakotz dute ere erreklama gaitza oraidanik egiten, maiatzaren 30a aintzin hartuko diren txartelak edo

billetak prezio berezi batean eskainiz, gero izanen diren baino aise merkeago».

Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren helburuak azpimarratu ditu Herria-k bere orrialdetan: «Festibala bera arras berezia da eta helburuak ere gisa hartakoak dauzka. Alde batetik, herri ttipi batean muntatzen dute, Euskal Herri barnean, erakusteko barnekalde hortako herri ttipiak ez direla baztertu behar, kostaldeko edozoin toki bezén egokia hor nunbait kausi ditakeela. Beste helburu bat da kultura desberdin batzuen elgarri lotzea gisa bat edo beste, denek elgar hobeki ezagutzeko, denek elgar

hobeki estimatzeko azkenean». «Erakusketa, eztabada eta gaineratikom mugimendu gaitza izanen da hiru egunez. Ikastaldi labur batzu ere ba, hor kausituko direnak doi bat ohartzeko euskarari, jakin dezaten bederen euskara zer den. Gauza bera euskal dantza batzuentzat. Izanen da hor kantari eta soinulari frango, korsikar, bretoin, okzitano ala beste, euskaldunekin kurutzatuko direnak. Gauko musika berri horietarik nasai. Hogoi talde bat denez, horien artean gure eskualdeko zenbait aipatu behar-eta, Zapozain, Skunk, Mokoka...».




urdairen mintzoa


Xabier Larraburu

Estatistiketaz

Inon agertzen ez diren estadistiketaz, eta ditxosozko grafikoetaz, arituko naiz orain. Pasa den astean, Iruñean, hogeitaume, berrogei katakume, hogeitahiru txakur, zortzi ahate (Takoneran) eta sei mila zazpirehun eta berrogeitahamabost kotxe jaito ziren. Zenbakietan emango dut badaezpada ere: 20-40-23-8 eta 6.755. Gauza hauek grafikoetan emanda hobe ulertzen direnez, honatx grafikoak:



Heriotzen estadistika, aldiz, horrela dator: Iruñean hogeita hamaika gizaseme, hiru katu, bi ahate, zazpi kotxe eta larogehita hamar zuhaitz hil zirela esaten digu. Mesedez, grafikoak.




Atera ditzagun, beraz, dagozkie onorio zientifikoak. Hasteko, zuhaitzena ez da izurrite misterio baten errua. Behintzat misterioa ez da: zabalgunean kotxeen lur azpiko aparakekuak egiteko bota dituzte eta kitto. Estadistikek beraz ongi itxitako zirkulu bat marrazten dute. Bozgoragailuetatik katea dagoeneko ezin dela eten ohiukatzen digute, etengabe. Batzuk, Darwinek dordoka erraldoiei begira esan zuen bezalaxe, ahopeka diote: egokitu edo hil. Beti ere ongi egokitutakoak izaten dira horrela mintzo direnak. Bidean, lurraren kontra talaka egin duen meteorito beldurgarri honengatik, desargetu diren espezieak zenbatu ditzazkegu. Sindikalista borrokalariak. Billabesak. Instituzioen duintasuna. Oinezkoak. Ekonomilari kritikoak. Txirindulariak. Hirigintzaren gizazaleak eta zuhaitzak noski.

Pena da grafikoak koloreetan ez ateratzea. Konbintzenteagoak izango ziren.

Uraren eramaiaren fruitu

Zaharberritze lanak bukatu eta gero, Zubietako errota ekomuseo bilakatuko da

Zubietako errota zaharberritzen ari da bertako Udala. Lanak bukatu eta gero, ekomuseo bat egiteko asmoa dago. Errotak, garia eta artoa ehotzen jarraitzeaz gain, galtzen ari den bizimodu bat erakusteko balioko du aurrerantzean.



Zubietako errota berritzen ari dira egunotan. MIKEL SAIZ

hirugarrena gararako. Orain arte bakarra zegoen etxebizitza eta komunak kokatuko dira eta ganbaran berez ekomuseoa izanen dena jarriko da. Zubietakoa Nafarroan ezartzen den lehen ekomuseoa izanen da. Bertan pausoz, pauso errotaren funtzionamendua azalduko da eta, aldi berean, egun

tzen du eraikinan. Lehen solairuan errotariaren etxebizitza eta komunak kokatuko dira eta ganbaran berez ekomuseoa izanen dena jarriko da. Zubietakoa Nafarroan ezartzen den lehen ekomuseoa izanen da. Bertan pausoz, pauso errotaren funtzionamendua azalduko da eta, aldi berean, egun

Asko izan arren, sailkapenik ez Nafarroan

Nafarroan errotak nonahi izan arren ez da sailkapenik egin. Komunikazioak eta ohitura aldatuak aurrera egin ahala errotaren funtzioa desagertu da toki askotan. Hori dela eta, maiz aurrigoeran aurkitzen dira eraikinok. Susana Irigarai, Aiegikolratzeko Museoko teknikoa eta historialaria arduratu da Zubietako errotaren garrantzi historikoa eta etnografikoa biltzen duen txostena egiteaz. Historialariak dioenez, errotaren sarrerako atean eraikitua 1785koa dela irakur daitekeen arren, eraikina historian kokatzea zaila da ez dagoelako data zehazten duen agiririk. Dena den, ez da salbuespena, herrialdeko errota gehienak pribatuak izan arren noizkoak diren esatean zaila delako. Haren iritziz XVIII mendearen ondorengoa da eta bertan aurkitu diren lanabesak eta makinaria joan den mendekoak. Beste asko ez bezala, Zubietakoa oso baldintza onetan zegoen orain egiten ari di-

ren zaharberritze lanak hasi baino lehen. «Beti egon da lanean eta horrek bizia eta ongi matentzeko aukera erraztu dio. Mantendu bada izan dituen jabeek interesa zutelako izan da. Orain artisau feriatan taloa egiteko ohiturak indarra hartu du. Produktu hori lortzeko irina egiteko funtzioa betetzen duenez, hor dirau errotak», azaldu du Irigarai. Desagertzeaz dagoen aktibitate bat ordezkatzen duen arren, Nafarroan ez dago hainbat herritan dauden errotak biltzen dituen sailkapenik. Iratxe Museokoa teknikariak dioenez, egin izan dira ikerketa solteak baina ez dago zerrendarik. Ikerketa solteak dira. Vidal Perez de Villarek edota Carlos Idoatek *Cuadernos de Etnologia* egindakoak, kasu. Berriki Nafarroako Gobernu Turismo Zerbitzuak aginduta Baztango 22 erroten inguruko ikerketa egin da, funtzionamenduan ez egotean aterpe bezala erabiltzeko aukera ikusteko. Dena den,

Juan Martinez, Turismoko proiektuaren arduradunaren esanetan oraindik ez da deus errotak gehienak, Zubietan gertatzen den moduan, jabe sail batenak direlako. Bestalde, errotak Nafarroa osoan sakabatuak egon arren, mendialdean mantendu diren gehienbat, nekazal ohitura jakin batzuk mantendu direlako eta komunikazio erreztasunik ez dagoelako izan herri txiki askotan. «Komunikazio zailagoak izatean herri bakoitzak, txikia izan arren, errota bat edo gehiago ditu. Gainera, gehienetan partikularak dira. Jabe batek mantendu ahal baldin bazuen, egin egiten zuen. Errotatik dira ugariak iparraldean. Arrazoi tekniko eta praktikoa da, besterik ez gaineratu Irigarai. Era berean, errota gehienak hidraulikoak dira nahiz eta haizearekin funtzionatzen zuten batenbaten agiririk eta arrastoak ere izan diren. Gerindako zerran zegoena, kasu

erabiltzen ez diren zubietarrek utzitako nekazal tresnak erakutsi nahi dira. Bestalde, Zubietan eta Iturenen hain errotak dauden inauteriak ere gogoratuko dira. Bestalde, errotaren eraikinaren eskuinaldeari joan den mendean gehitu zitzaion argi-indarra sortzeko etxola errotako bizitzaren inguruko ikus-entzuteko muntai bat erakusteko erabiliko da. Finean, zonaldeko ezaugarriak biltzen dituen museo etnografiko bat egitea da asmoa. «Herri arkitekturaren lekuko diren erakin hauek gorde nahi badigu bizitza berri bat eman behar diegu. Horrek esan nahi du erabilera berri bat izan behar dutela eta kasu honetan ekomuseoa litzateke» azpimarratu du Maite Apeztegiak.

Ekomuseoak Frantziako Bretainian aurkitu daitezke batez ere. Kokatzen diren inguruneari uztartuak, bertako bizimodua eta ekonomia isla dira eta hori bera gauzatu nahi da Malerrekako herrian.

Bestalde, Udala harremanetan dago Nafarroako Gobernu Turismo Zerbitzuarekin. Oraindik zehaztu gabe badago ere, Bertizko Turismo Partzuergoaren bidez kudeatuko da seguruenik ekomuseoa, eta Nafarroako museoen sarean sartuko da. «Bertzen naturaren museoa dagoen moduan, orain Zubietan ekomuseoa kokatuz inguruan ibilbide turistiko interesgarria sortu daiteke. Zonal-



Maite Apeztegia:

«Herri arkitekturaren lekuko diren eraikin hauek gorde nahi baditugu, bizitza berri bat eman behar diegu. Horrek esan nahi du erabilera berri bat izan behar dutela eta kasu honetan ekomuseoa litzateke»

dea polita izan arren, maiz eguraldia kaskarra da eta horregatik alternatiba politik eskaini behar dira» dio proiektua diseinatu duen arkitektoak.

Behin errota moldaturik, bigarren fase batean ingurunea ere txukundu nahi da. Horretarako 2.800.000 pezetako dirulaguntza lortu dute eta errotara ura eramaten duen kanalaren ondoko bidea txukuntzeko erabiliko litzateke. Leitzatik Doneztebera doan errepede hertzean kokatzen da errota (NA-170an), herritik 500 metrotara edo. Ezkurra ibaitik ura hartzen duen kanala, errotaren zaharberritze lanak direla eta hutsik dago orain, baina behin beteta, ondoan duen bidea moldatuko zaio herria eta errota errepedez soilik ez ezik, orain arte ez duen bide lasai batetik lotzeko. Bidenabar, gainera, herrian porlanezko estalki batek ikusten uzten ez duen harrizko garbitegia moldatu eta erakutsi nahi lukete

ere. «Uraren inguruan paseo polita izan daiteke» dio Apeztegiak. Bestalde, errepedearen bestaldean herriak karea egiteko dituen bi karubi-zulo ere zabalteko aukera ikusi dute. «Ibilbide polita izan daiteke, garai bateko lanbide ezberdinak biltzen baitira leku txikian. Ongi egin ez gero guztiak agertu daitezke» gaineratu du Apeztegiak. Nolanahi ere, bigarren faseko ekintzak Udaltzeko gauzatu nahi litzuzkeen asmoak besterik ez dira oraindik. Egun, Mikel Belarra idazkariak dioenez, «guztia egin ahal izateko dirua falta da».

49 lagunen jabetza

Zubietako errota noizkoa den zehazten duen agiririk ez dagoen arren, sarrerako atean duen harrizko izkribuak 1785koa dela dio. Udalak, Juinas Paul historialariak eta urte batzuz errotari izan zenak jasotako datuak gordetzen ditu. Datu horien arabera, 1855an egin zen jabetza publiko errota eta 1863an enkantera ateratu zen. Andres Monreal lizarrarak erosi zuen 81.500 erreale ordainduz. Urte berean, jabeak Pedro Jaen Gonzalez izan zion jabeagoa 7.290 eskudotan. 1867 berriro ere saldu egin zen, baina orduan, 7.200 eskudo ordaindu eta gero, 82 partehartzaile gehiago hartuko zitzaizkien errotari. Zaharberritze lanak egiteko eta dirulaguntza lortzeko egun zituenez 49 partehartzaileek hamabost urterako utzi diote jabetza Udalarri, baina beti ere, errotan artoa ehotzen uzten bazaien. Zubietak duen biztanleria aintzat hartuta, «familia gehienek dute errota erabiltzeko eskubidea» azaldu du Udaltzeko idazkariak, eta errota moldatu eta gero ohitura hori gorde egin nahi da.

Era berean, orain arteko ordainketa modua ere mantentzeko asmoa dute. Laka da artoa jotzearen truke errotari ordaintzeko erabiltzen den ordainketa portzentaia eta kilo eta erdiari dagokio. Herrian artoa erregutan neurtzen zen eta horrela jarraitzeko ideia dute. Erregu bakoitza 11,5 kilo dira eta errotariak erregu bakoitzeko laka bat hartzen du. Ehotzen duen arto inaren portzentai bat hartuko du eskaintzen duen zerbitzuagatik, beti ere lakaren neurria gordez.

Azken bost urteetan Gipuzkuako bikote batek izan du errotaren ardura. Aurrerantzean, behin lanak bukatu eta gero, Udalak ekomuseoaz eta errotaren funtzionamenduz arduratzeko deialdi publikoa egingen du.

→ Irene Arrizurieta



Errotak dituen ehotzeko hiru harriak martxan jarriko dira lanak akitu ostean. MIKEL SAIZ

Joxemiel Bidador

Nafar bibliografiaren inguruan

Antonio Perez Goiena Iruñeondoko Uhartan zitzaigun sortu 1863.eko urtarrilaren 17an. Atarrabiko jesuitenean ikasle, Loiolakoaren abaroan atxekirik betiko iraun zuen



NAFARROAN ASPALDIA DA JON Bilbaorenekoaren tamaina urratu genuela, eta ez urri bestalde. Antonio Perez Goiena Iruñeondoko Uhartan zitzaigun sortu 1863.eko urtarrilaren 17an. Atarrabiko jesuitenean ikasle, Loiolakoaren abaroan atxekirik betiko iraun zuen, eta orden barruko berriazko ibilerak kurriturik nonbait. Salamancara arribatu zen irakaslea, nondik, 1906ean, 'Razon y fe' aldizkari zuzendua akuilatzeko arta egokirik Madril aldera lerratu zen. Madrilen hamabost urte eman ostean, Erromara deitu zuten, lagundiaren *ratio studiorum* gaurkotzeko eratu laukotearen osatzaile. Han zegoe-la, lagundiaren argitalpenen aztertzaile nagusi izendatu zuten. Erroma aldean esan betekizuna gauzatzeko bi urte emanda, Madrileren itzulazi zuten harzara aldizkariaren zuzendaritzara, harik eta 1932. ean Errepublikak lagundia deuseztatu zuen arte. Doi bat aurretikago, eta zetorrena aurreikusirik, Tuteran eta Iruñean izan zen, eta bigarren honetan geratuko zen apezgai-tegiaren irakasle. Baita Biana-ko Printzea kultur erakundearen kolaboratzaile finko.

Perez Goienaren ekoizpen idatzia ikaragarria da, zabala- ren neurriak ikaratzeko baitu, literalki. Jose Sagues ordenki- deak haren omenaldirako ondu uhartearen profila, osteko izarrekin konparatu zituen Perez Goienaren lanak, zenbakitaz. Izkiriatu ororen zerrendatzeari saihestu, goaz- kion nafar bibliografiak tajutu zuena begiztantzeari. *Ensayo de Bibliografía Navarra* zortzi aledunak zintutegiaren sorrera- tik 1910. urtera arte Nafarroan inprimaturik oro du belanda, eta aipamenak ezezik, izenbu- ru bakoitzaren deskribaketa zehatza ere jaso zigun josula- gunak. Esangabe doa, euska- raz argiratutakoaren historia- rako ezin utzizko tresna dugu

eta beste euskalkietan Iruñeko moldetegietatik ateratakoari erreperatu baizik ez da egin behar. Burgosen 1947. ean argitaratzen

hasia zen honakoak Olabe Liburutegiko saria jaso zuen, egilearen honako ohar apala gezurtatu nahiko bailuan: «Hemos registrado numerosos archivos y bibliotecas, muchos contratamientos y montes de dificultades hemos encontrado en nuestra investigación, que a veces se convirtió en una vía dolorosa. Sirvanos esto de disculpa, si la obra no sale tan cumplida y perfecta como ansiaríamos».

Eta nafar bibliografia bat egotea nahikoa balitz, Tuteratik heldu zitzaigun ere Erribe- rako beste saiakera bibliografi- koa, Jose Ramon Castro Alava medikuak ondu ziguna alegia, artez zizelatua, eta hiri txiker batetik eratorria izanagatik ere, edozein harri lezakeena, hain da zabala, hain da sako- na, hain da maratza Ebro baz- terretik aihera bezala goraki kiribiltzen zaiguna. 1993. ean atera *Ensayo de una biblioteca tudelana* litzateke honen hazia, baina *Autores e impresores tudelanos* liburuak aurre- koa sobera gaintu zuen. Jose Maria Cuadrado patronatoa- ren laguntzapean, Biana- ko printzearen Erakundeak eman zuen argitara Iru- ñean 1963. ean, Jose Luis Arrese kore- llarrak aton- du sarrera- rekin agertu zelarik:

«Asombra ver como una ciudad callada y reducida como ésta de la Ribera ha podido dar a la ciencia un abanico tan amplio de escritores. Asombra ver cómo Tudela fue centro de convivencia de los hombres habidos en las tres religiones y

suma de las letras y de las artes y de las ciencias».

Geure aldetik esan ere egin behar, egun harri eta zur gai- tuena ez da iragan gariatako eskeintza narea, bai ordea honek izan ez duen ondoren- goa, eta hauxe diogunean, sal- buespenak sabuespen, eta dauden lits urriak gutxietsi nahi barik -irakur bedi *Merindad de Tudela* aldizkaria edota *Traslapunte* olerki papera-, Nafarroako Erribera zotuka lezakeen bultzada nabarmena- go baten premia herabeki alda- rrikatzera ausartuko ginateteke.

Jose Ramon Castro Alava Tuteran sortu zitzaigun 1895.eko abuztuaren 31. ean. Esan bezala, sendagilea genuen, baina ikasle zihardue- la, ez zion destaina giza ikas- keten amaraunean sartzeari, eta historia Zaragozako uni- bertsitatean ikasirik, ezezagua agitu zitzaigun alor honen bete artarengatik tren- putxartuak sendatzeagatik baino. Hari zor diogu nafar artxibategiko katalogoen argi- taratzea, Idoatek bukatu zuen lana, eta Nafarroako artxibo burua zela buruturikoa. Lan ugariaren egilea, aipagarriak litezke biografiaren arloan tajutu zituenak: Yanguas Miranda, Juan Antonio Fer- nandez, Díaz Bravo, Nafa- rroako Carlos III.,...

betiere, bibliografiaren harian topatutako berrietan oina- rriturik. Bera ere, neurri haundi batean, betetzen ari zen lanaren garrantziaz jabeturik bage- neukan:

«Aporto así mi grano de arena a la plausible labor que, para dar a conocer la bibliografía navarra, realizaron Altadill y Aritaga, y que a la sazón se está completando con la magna obra del benemérito P. Pérez Goyena».



Patziku Perurena

Solo lelo leloa...

LA PRENSA DE LA iz- quierda abertzale en castellano trasmite una y otra vez información activa como Egin todos los días. (...) Pero, a pesar de no estar adscrita a la izquierda abertzale, la prensa en lengua vasca jamás a alienado así. Neronek euskaratua:

Euskainol hutsean egiten den gure prentsa ezkerak egunero eginez desegiten gaitu. Nik badut lagun franko, urrutira gabe, Leitzan eta Goizuetan, euskaldun analfabeto hutsa dena, baina, euskaldun jatorrago izateko, eta are eg(i)n) bakardun heroe sentitzeko, egunero egia erdaraz erosi eta euskaraz leitzen saiatzen dena. Nola ez aberastu hemen, gero, sikiatratu edo dena delakoak!

- El acceso del eusquera a los modernos medios audiovisuales no ha hecho sino ensanchar el campo de alienación. La adecuación de nuestra lengua a disciplinas no trabajadas hasta hoy nos ha llevado a una adaptación vulgar y torpe, asumiendo los modelos metafóricos de la lengua dominante. Neronek euskaratua:

Mundu lasterberrituegi honetako mila logos ergel euskainol xuriz jaztean, areagotu baizik ez dugu egin euskaldunon alienazioa; erdal gorputzari aurikularrak kendu eta euskal soinekoari belarririkoa paratu nahi bagenizkio bezala edo sumatzen da bazter guzietan. Euskaldunon artean euskaldun bategin topo egitea, kasik ezinezko egiten da. Horregatik, ez harritu faborez, abereei, arbolei edo etxeko paretari hizketan harra- patuko duzun martziako horre- kin, ez dago erotuta, gelditzen zaigun euskaldun sano bakarra da.

- Pero tampoco queremos un eusquera sin Euskal Herria. Es decir, que a través del eusquera buscamos algo más que la belleza por la belleza, algo más que la simple perpetuación del idioma, porque las palabras que utilizamos, permítanme una afirma-

ción antiacadémica, no son signos arbitrarios. Son cristales teñidos de muchas historias. Con ellos forjamos nuestro espejo, y al mirarnos en él sabemos más de nosotros mismos. Neronek euskaratua:

Baina ez dugu nahi Euskal Herri gabeko euskara hutsik ere. Hitzen jantzi pollita baino zerbait gehiago bilatzen dugu euskaraz; euskaraz egiten badugu, ez dugu egiten euskara jazteko, euskaraz jazteko baizik. Antieuskaltzain amorratuak gara; guretzako hitzak ez dira apale- tan altxatzeko hartxuri polli- tak; geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik; eta haiekin osatzen dugu geure ispilua, eta hartan geure bu- rrua sumatzean, harrotu, nazka- tu, edo ikaratu egiten gara.

- Ese es uno de los pilares del fascismo, la negación del conocimiento. Neronek euskaratua: Hemen eta oraindik, ordea, nork bereremodu ikastea, pentsatzea, euskaraz bada eta fascistago da, eta inork gaizki uler ez dezan, euskaldunentzako are fascistago jakina. Baina, gazte zaharkitu inozo lotsagabetuok ez dute deusen kulparik. Nola hazi da hola hezi dituen moztorra? Eta zergatik gordetzen da egunez, astelegunez?

Bai, dena festa giroan egiten da hemen, iraultza ere paseo sabatomingeroan, deus ezbaian paratu beharrik gabe, inoren egia bakarrik eskutik ahora eraman eta kontrako ezterrira joan beldurrez edo, euskararen leku- kotza ere eskutik eskura pasatzen da, ixilik, diru beltza bezala, eta ez ahotik ahora, zea. Gero Korrika, kilometroak, Nafarroan Oinez baezpare, eta hola gabilza.

- Somos un poco los viejos del parque que caricaturizaba Evtuschenko, siempre murmurando que sin crítica no avanzaremos, pero siempre callando porque ejercerla es dar bazas al enemigo. Entenitzen? Gezurra da hori. Euskara finak babesten baigaitu kontrario asmatu eta aldeko faltsu guziagandik.

Ziria

• Motxorrosolo •

Eredugarria

ULTZAMAKOAK GURE MUGAK GAINDITU ZITUEN. BATZUK EZER GUTXI behar dute apologia egiteko. Ez da kasu bakarra. Lanbide Heziketako D ereduko zenbait ikasle erdaraz ari dira. Zinez eredugarria. Beti ere, oraingo honetan, salaketa egiteak zailtasun bereziak ditu, aurreko esperientziek bide malkartsua zabaldu dute. Salaketa badu bere ordainak, ikasleren batek ordaindua. Eraso guztiak ez omen dira arazo.

M^a Angeles Mezkiriz ☉ Nafarroako Museoko zuzendaria

«Museoa ikerketa zentro bat da»

Museoen Nazioarteko Eguna ospatu da aste honetan. Hori dela eta, Nafarroko Museoa hainbat ekitaldi antolatu ditu astean zehar. M^a Angeles Mezkiriz bertako zuzendariaren ustez, museoa, herrialdeko historiaren lekuko izateaz gain, ikerkuntzarako gune ere bada.



● LUIS AZANZA

soslaia

XVI. mendean ospitale izateko eraiki zen museoan duen bulegoan hartu gaitu Mezkirizek. Herrialdeko historiaren puska bat biltzen duten koadro eta izkribuez inguraturik gozaten duen beharra lasai mintzatu da.

■ **Hitzek berek dioten moduan Nafarroako Museoa benetan herrialdeko museoa da?**

Bai. Foru Komunitateko museoa dela esan daiteke. Oro har, Historiaurretik gaur egun arte gure aurrekoek utzitakoa biltzen du. Historiaurretik hasita, hemen ditugun oinarri zaharrenak Kristo aurreko 100.000 urte baino lehenagokoak dira, harrizko aizkora bat lekuko.

☉
 «Europako arkeologi
 aztarnategietako
 izurritea dira
 metalezko
 detektagailuekin
 piezen bila joaten
 diren igandezaleak.
 Bereziki
 Mediterraneoko eta
 Afrikako iparraldeko
 herrialdeetan
 gertatzen da,
 aberatsenak direlako
 arkeologi aztarnetan.
 Ez dira ohartzen
 nolako kaltea egiten
 duten»
 ☉

■ **Berez, Nafarroako historia laburbiltzen duela esan daiteke?**

Bai. Nafarroako Museoa, herrialde jakin bateko museoa izanik identitate faktore da. Nondik gatozen eta zein garen jakiteko, eta, era berean, nora goazen edo joan gaitzkeen ikusteko.

■ **Ildo horretan, zertateke museo helburua?**

Artelanak gordetzeko tokia izateaz gain, museoa ikerketa zentru bat da. Hori ezinbestekoa da. Erakutsi behar denak zehaztasun bat izan behar du nahiz eta modu apalean erakutsia izan. Datak eta interpretazioak ikerketan oinarrituak izan behar dute. Bestalde, kontserbazioa ere ezinbestekoa da. Museoa, bestalde, bildumak gorde, kontserbatu eta zaharberitzeko egina dago, eta guzti hori datozen belaunaldiak izateko gaude hemen. Aldi berean, museoak mantentzen dituen gizaritari eskaini. Ikasleak, bisita gidatuetan hurbiltzen direnak eta hirugarren adinakok dira gure bezero.

■ **Egun, zein da museoaren behar nagusia?**

Lekua. 1990ean egin zen berrikuntza nabari geratu zen lekua falta dela. Museoak agertarazi dezakeen identitate faktore garrantzitsuenetakoa monetak dira, Nafarroak bere moneta izan baitzuen Isabel II.a arte. Baina, toki falta dela eta, daukagun numismatika bilduma erakutsi gabe dago.

■ **Honat hurbiltzen denak ulertzen du museoaren mezua. Obrak erakusteko toki bat besterik ez da edo eskaintzen du besterik?**

Gehiago izatea da gure asmoa. Behin betiko erakusketa ez da aldatzen baina gure helburua da guztiengana heltzea. Museoaren katalogo zabala dugu eta guztiatara iristen saiatzen gara. Ezin daiteke museoetan gehigizko informaziorik jarri, hortan saiatu diren museoak bisitaria izutu egiten dute eta azkenean ez du deus irakurtzen. Beraz, tuste dugu hobe dela informazio zehatza, oinarritzkoa eta irakurteraza. Esperientziak erakutsi digu hobe dela horrela egitea.

■ **Aurtengo leloa espoliazioaren aurka borrokatzea da. Arazo handia da?**

Bai, larria da. Behin eta berriro hartzen ditugu Nazioarteko Museoen Elkartetik hainbat museoetik desagertu diren piezen zerrendak. Piezak harat eta honat ibiltzen dira eta, askotan, lapurtuak izan direla jakin gabe erosi. Jatorria beti ziurtatzen den arren, horretan dabilzanak iruzur egiten dituzte. Hemen nabaritu dugu arkeologian. Oso ohikoa da aztarnategietan zuloak aurkitzea. Jendea metalezko detektagailuekin joaten da piezen bila. Europako arkeologi aztarnategietako izurritea dira, bereziki Mediterraneoko eta Afrikako iparraldeko herrialdeetan, haiek direlako aberatsenak arkeologi aztarnetan. Askotan igandezaleen paseora

M^a Angeles Mezkiriz iruindarra da aspalditxo Iruñeko Santo Domingo kalean dagoen Nafarroako Museoko zuzendaria. Historian dokorea, Zaragozako Unibertsitatean ikasia, Italian arkeologia ikasteko beka batek ohararazi zuen arkeologian aritu nahi zuela. Bordigera arkeologia institutuan ikasi eta Siziliako aztarnategien bama ibili eta gero herrialdera itzuli zen.

Museoan herrialdeko historiaren hainbat begirada aztertzen badabil ere, ez du nahiko, eta beharra duena ere aisialdi bilakatu zaio. «Ezerk ez nau gehiago gozaten harri tartean ikertzen ibiltzeak baino», dio. Arkeologia ikerketak ez ezik, bidaiatzea oso gustuko du. Baina ahuntzak beti mendira jotzen duen moduan, Mezkirizek, oporretan ere, arkeologi aztarnategietara egiten du eskapo. Azkeneko ihesaldia: Bartzelona ondoan dauden Gabako koba neolitikoa eta museoa.

Historiako garai guztiak gustuko baditu ere, Erromatarren garaia da bere gaia. Erromatarren zibilizazioaz hainbat ikerketa eginak ditu. Historian atzera asko begiratzen badu ere, museoan arte garaikidea ere sartu nahi luke. Dena den, ez omen du arkeologiak bezainbeste betetzen.

ateratzen diren igandezaleak dira. Moneta edo brontze txikiak ebastez ez dute onurarik aurkitzen, ongi pasatzen dute baina ez dakite nolako kaltea egiten duten. Arkeologi ingurunea izorratzen dute, aurkitzen dutenak ez du balio handirik eurentzat. Aldiz guri, datu arkeologiko berri baten interpretaziorako datu erabakigarriak kentzen dizkigute. Badira mafiak ere, aztarnategiak osten dituzte negozioa egiteko. Hainbat salaketa jarri ditugu, batzuek arrakasta izan dute eta berreskuratu izan dugu arkeologi pieza garrantzitsurik.

■ **Zein gune dira arriskutsuenak?**

Pirata horiek informazio oso osatua dute. Ezagutzen dituzte

arkeologi zonalde guztiak, eta argitaratzen den guztia ikertu eta ikasi egiten dituzte. Mafia horietatik babestea zaila da.

■ **Zein neurri hartzen dira?**

Artelanak eta arkeologia gordetzeko modurik hobereana ongi eza gutzea da, ongi sailkatzea. Tuterako merindadea sailkatua dugu, Erriberri eta Lizarrako merindadeen puska bat ere zerrendatua dugu. Dena den, asko kostatzen den lana da. Lurralde guztia ongi orraztu behar da. Ez dugu diru gehiegirik eta gutxinaka egin behar dugu. Dena den, museoak 200 milioi pezetako aurrekontua du (8 milioi libera), eta gutxi da nahi genukeen guztia gauzatzeko.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Futbolaren politikaz

Gizarte honetan futbola baino gauza garrantzitsuagorik ez dagoela frogatzeko asko da tabernarietasteazken gaueko etekinez galdetzea edo zine aretoetara joan ikusleen kopuruari erreparatzea. Kaleak hutsik, autoa aparkatzeko arazorik ez, tabernetan, nahiz eta telebista pizturik egon, inor ez. Herenegungoak uztaillaren amaierako gaua zirudien.

Asteazken gaueko partidua alpa-tuagatik ez dut futbolaz idatzi nahi, politikaz baizik. Izan ere, futbola eta politikaren arteko harremanak estuak izan dira betidanik. Garai batean politikokoek futbola beren probeturako erabili ohi zuten. Gaur egun egoera aldatu da futbolistak nagusitu direlako. Futbolaren politika.

Hortaz, futbol partiduaren emaitzari esker Aznarrek inoiz baino ozengago erran lezake Espainia ongi doala biztanleriak ez baitio bertzelako esplikaziorik eskatuko, ez langabezi tasaren egoeraz edo Euroan sartzeko arazoez, asteazken gauaz geroztik begi bistan baitago bibotedunak gehien errepikatu duen esaldia egia dela.

Eta Nafarroan zer? Diputazioko agintariak argi erran digute: Espainiaren egoera ona bada, Nafarroarena hobe. Baloi baten atzetik ahaleginak eginez lasterka joaten diren gorritxoak ez dira, inondik ere, madrildarrak bezain trebe. Gizarte honetan gurea ordezkatzeko omen duten galtza motzetan dabilzan horiek baloia bertzeek baino gehiagotan sareetan sartzea garrantzitsua izanik, nola demontre sinestaraziko diote jendeari ongi gozela?

Gaizki, oso gaizki gabilta. Sozialistak, egoeraz oso kezkatuak, aurrekontu hitzarmena hautsi eta oposizioa joan dira. Ez da harrizkoa.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Oibar:** Egan taldearekin gau-pasa dago bihar, 12:00etatik aurrera, Sempa pabiloian. Taldeak aurtengo Nafarroa Oinezeko abestia aurkeztuko du.
- **Bakaiku:** Joxean Goikoetxeak 'Goazen lagun' lana aurkeztuko du bihar frontoian, 20:30etan.
- **Orobia:** Ger The Rigger taldeak folk kontzertua eskainiko du, bihar, 20:00etan, Kontzejuko aretoan.
- **Lezaun:** Vaghi Concetti abesbatzak *Siempre quedará Venecia* lana eskainiko du etzi elizan 12:30etan.

ANTZERKIA

- **Oibar:** Kollins Clown taldeak *Bikingoak* antzezlan eskainiko du bihar, 17:00etan.
- **Tafalla:** Gabalzeta antzerki taldeak *El jaguar azul* lana antzeztuko du gaur 20:00etan Kultur Etxean. Sarrerak 300 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** 'Nafarroako basoak' erakusketa ikusteko aukera dago Kultur Etxean maiatzaren 31 bitartean.
- **Iruñea:** Pili Francese pinturak ikusteko aukera dago Roch kafetegian hilaren bukaera arte.
- **Lizarrak:** Koldo Sebastianen lanak ikusteko aukera dago Gustavo de Maeztu museoan. Erakusketa ekainaren 28ra arte egonen da zabalik.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** 'Diario de Navarrako bilakaera ideologikoa' hitzaldia eskainiko du datorren asteartean, 19:30etan, Txantreako Kaskallueta Kultur Elkartearen Victor Moreno irakasleak.

- **Oibar:** Nafarroa Oinezeko ekitaldien barruan Otxagiko dantzarien emanaldia izanen da bihar, 18:30etan. Ondoren txokolate jatea eta 19:30etan herri kirolak Zur-gai taldearekin.
- **Iruñea:** Ekainaren 7an Barde-etako Tiro Poligonoaren aurkako ibilaldia egingen da. Hori dela eta, Dortoka nagia talde-

ak txirrindula martxa antolatuta du Bardeetara. Martxa ekainaren 5ean aterako da Gaztelu Plazatik 17:00etan. Pitillaseko aintzirara joan eta Beireko aterpean igariko dute gaua. Larunbatean Erriberri-ra joanen dira autobusez eta ondoren txirrindulaz Bardeetara abiatuko dira. Informazio gehiago edo izena eman

nahi duenak dei dezala 948-21-05-30 telefonora edo pasa dadila Merced kaleko 18, behetik.

► **Iruñea:** 'Dana labrotute ikus-tot' ikuskizuna eskainiko da datorren asteartean, 20:30etan, Erraldoin Txokoa. Joseba Sarrionaindiaren Kiromantzidka poema da ikuskizumaren ardatza.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi eta harek zu ere amets eta harek zu ere erantzi eta hostoz hosto.

NATURE WINS

Ez dakigu zapata arin hauek nahikoa izango ote diren alde egiteko naturak ordaina kobratuko digun egunean.